



Euskarazko ikasmaterialgintza eta eskuliburugintza sustatzeko 2020ko deialdia

1. Deialdiaren xedea eta modalitateak

Deialdi honen helburu nagusia da UPV/EHUko irakasleen euskarazko irakaskuntzarako materialen ekoizpena sustatzea eta ikasmaterial horien hizkuntza zuzentasuna eta egokitasuna bermatzea. Ikasmaterialak Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren webguneko *UPV/EHUko ikasmaterialen sare-argitalpenak* atalean plazaratuko dira, ISSN zenbakiarekin, eta webgune honetan: <https://ikasmaterialak.ehu.eus/>.

Eskuliburu gisa argitaratzeko baldintzak betetzen dituzten materialak Argitalpen Zerbitzuak argitaratuko ditu, ISBN zenbakiarekin, paperean edo formatu digitalean.

Bi modalitate hauek ditu deialdiak, bai ikasmaterialetarako bai ikasliburuetarako:

- **A modalitatea:** ikasmaterial edo eskuliburu **berriak sortzea** da modalitate honen helburua.

- **B modalitatea:** **lehendik sortuak** diren ikasmaterialak edo eskuliburuak zuzentzea edo gaurkotzea da modalitate honen helburua.

2. Definizioak

- **Ikasmateriala:** Ikasleentzat ikaste-prozesurako erabilgarria den materiala, teorikoa nahiz praktikoa.

- **Eskuliburua:** Ikasleei zuzendutako liburuak dira, oinarrizko materialtzat jotzen dena irakasgai jakin baterako. Eskuliburu-proposamenek oinarrizko materiala izateko duten gaitasuna eskatzaileek azaldu beharko dute eta honako dokumentu hauek ere helarazi beharko ditu: 1) Erreferentziatzko irakasgaiak GAUR aplikazioan grabatuta duen gida gaurkotua erantsiko da. 2) Gai horren irakaskuntzaren ardura duen saileko kontseiluaren edo gai horren irakaskuntza jasotzen duen zentroaren egiaztagiria izan beharko du; egiaztagirian, jasota geratu beharko da lana interesgarria dela ikuspegi akademikotik eta materialaren edukia bat datorrela irakasgaiaren programarekin.

3. Proiektuen onspena

Proiektuak aurkezten direnetik bi hilabeteko epean plazaratuko da deialdiaren ebazpena.

UPV/EHUko Euskararen Plan Gidarietan (2013-2017; 2018-2022) esaten da Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak ahalegin berezia egingo duela deialdi honetan, bai giza baliabideen aldetik, bai diru-baliabideen aldetik.

4. Argitaratzeko baldintzak

Ikasleei zuzendutako eskuliburuak UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren estilo-liburuan jasotako baldintzetan oinarrituz argitaratuko dira (lotura honetan dago estilo-liburuak: http://www.ehu.es/documents/4638236/0/estilo_eusk.pdf):

- UPV/EHUko ikasketa planetako batean helburu duten irakasgaiak GAUR sisteman jasota duen uneko programarekin bat etorri behar dute.
- Saileko Kontseiluak edo irakasgaia irakasten den Zentroak egindako ziurtagiria (II. edo III. eranskina) izan behar dute. Han, lanak interes didaktikoa duela eta edukia irakasgaien programara egokitzen dela adieraziko da.

5. Hizkuntza-egokitasuna

Egileek testuaren gutxieneko hizkuntza-kalitatea bermatu beharko dute. Komeni da, besteak beste, Xuxen zuzentzaile automatikoa (<http://www.xuxen.eus/>) instalatzea eta erabiltzea. Halaber, kontuan izatekoak dira UPV/EHUko EHULKU zerbitzuaren aholkuak eta baliabide-zerrenda (<http://www.ehu.es/ehulku/>), bai eta EIMAREN estilo-liburuak ezarritako irizpideak ere (<https://www.euskadi.eus/eima-estilo-liburua/web01-a3eima/eu/>). Aurkeztutako lan osoaren kalitateak eskariko laginaren pareko izan behar du hizkuntza-zuzentasunaren eta -egokitasunaren aldetik. Testuen azken hizkuntza-orrasketaz UPV/EHUko Euskara Zerbitzua arduratuko da. Azkenik, Euskara Zerbitzuak onespengiria emango dio materialari, hura argitaratzeari dagokionez hizkuntzaren aldetik egokia eta zuzena dela adieraziko duena.

6. Materialak bidaltzeko epea

A modalitateko lanetan (egitekoak diren lan berrietan), parte-hartzaileek, justifikatutako arrazoirik ezean, **2021eko urriaren 31rako** bidalia izan beharko dute material osoa.

B modalitateko lanak (lehendik eginak diren lanak), berriz, justifikatutako arrazoirik ezean, emanaldi bakarrean aurkeztu beharko dira **2021ko martxoaren 12rako**.

Editatzeko moduko formatuetan aurkeztuko dira lanak, ahal dela Microsoft Office-ko edo OpenOffice-ko programak erabiliz.

7. Egileen konpromisoa

Eskaria onartua izanez gero, egileek konpromiso hauek hartuko dituzte beren gain:

- a) Materiala deialdian adierazitako epean bidaltzea helbide honetara: argialetxea.deialdiak@ehu.eus.
- b) Euskaltzaindiaren eta Euskara Zerbitzuaren hizkuntza-irizpideak betetzea eta zuzenketak testuan sartzea.
- c) Horrela badagokio, materiala, amaitutakoan, Euskara eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren webguneko *UPV/EHUko ikasmaterialen sare-argitalpenak* atalean plazaratzea (<https://ikasmaterialak.ehu.eus/>) edota Argitalpen Zerbitzuarekin adostutako beste argitalpen modalidadeetako batean.
- d) Eskuliburua argitaratzeko, haren interes didaktikoa eta kalitatea aztertuko dira. Zentroaren edo Sailaren onespentxostenak kontutan hartuko dira, baina Argitalpen Zerbitzuak eska lezake ebaluaketa itsua ere, Euskara Zerbitzuak Argitalpen Zerbitzuarekin batera hautatuko kanpoko ebaluatzaileen txostena eskatuta.
- e) Testugileak, orobat, idazki bat igorri beharko du, non ziurtatuko baitu material sortu berriaren jabe intelektuala dela.

8. Egitasmoen aurkezpena

Interesatuak deialdi honekin batera argitaratzen den I. eranskina bete eta argialetxea.deialdiak@ehu.eus helbidean aurkeztu behar dute **2020ko abenduaren 15erako**. Deialdiari buruzko argibideak helbide horren bidez jasoko dituzte.

Ohartu bitez eskatzaileak lanaren laburpen bat (A modalitatean) edo lagin bat eta aurkibidea (B modalitatean) aurkeztu beharko dutela, ohiko formularioarekin batera, gutxienik hiru orrialdekoa (4.200 karaktere inguru). Aurkibideak ez dira onartuko lagin gisa. Lanaren edo proiektuaren hizkuntza-kalitatea balioesteko erabiliko da testu hori.

Eskuliburua argitaratuko den ala ez erabakitzeko, izenburua, aurkibidea eta dagokion irakasgaiaren programarekin duen lotura aztertuko da; bai eta lanaren interes didaktikoa eta kalitatea ere.

Leioan, 2020ko azaroaren 26an.



Jon Zarate Sesma

UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordea